



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIÓN**

4318

Ekimenaren izenburua: Kulturaren, ekitaldien eta ikuskizunen sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan suspertu daitezten sektore horietan ezohiko neurriak hartzeari buruz.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Kultura-sektorea indartzen jarraitzea, pandemiaren ondorioz sektore horretan jarduera gelditzeak edo murrizteak eragindako galerak arintzeko neurri ekonomikoen bidez, kontuan izanik sektoreak bere aniztasunean dituen arazo, berezitasun eta ezaugarriak.

2. Gainerako euskal erakundeekin batera, kultura-ekitaldiak eta -ikuskizunak programatzea eta egitea bultzatzen eta errazten jarraitzea, bai eta jendea ekitaldietara joatea ere.

Hori guztia, pandemiari aurrea hartzeko eta eusteko unean-unean indarrean dagoen arau-esparruaren barruan.

3. Erakunde arteko eta sektorearekiko koordinazioari eta lankidetzari eustea, pandemiaren ondorioz areagotuta, horretarako dauden espazio eta kanalen bidez. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen zaio egin diezaiela jarraipen bat pandemia dela-eta aktibatutako sektoreari laguntzeko neurri bereziei, eta jarraipen horen arabera baloratu dezala neurri horiei jarraipena ematea edo egokitzea."

EA-NV

SV-ES

EP-IU

